

## 7. ESKUALDEAREN EDO NAHITAEZKO MANKOMUNITATEAREN BATZARRA NOLA AUKERATU

*“2017ko proposamenak hainbat aukera ematen ditu: zuzen aukeratzea, udal hauteskundeen arabera moldatzea edo udalen araberako ordezkariak”.*

---

### **2017ko proposamena**

Honek hainbat aukera ematen ditu:

- Zuzen aukeratzea
- Udal hauteskundeen arabera moldatzea
- Udalen araberako ordezkariak

### **2012ko Foru Lege Proiektua**

Proiektuak aukera bakarra eskaintzen zuen:

*“Interes Orokorreko Mankomunitateetako estatutuek zehaztuko dute mankomunatu den udal bakoitzak zenbat ordezkari edukiko duen, eta, edonola delarik ere, udalbatzen egituraketa politikoa zaindu beharko da (sic). Ordezkariaren botoa beti haztatua izango da, biztanleriari buruzko irizpideei men eginez”.*

Idazketa honek ez zuen argitzen nola bermatu behar zen “egituraketa politikoa”.